

Honako itun honi atxikitzeko banakako agiria: Kanpoko lankidetzarako ituna software-hornitzaile diren entitateekin, fakturazio-erregistroak elektronikoki emateko hirugarrenen izenean, horrek bide emanen baitu Balio Erantsiaren gaineko Zergaren erregistro-liburuak Nafarroako Zerga Ogasunaren zerbitzu telematikoen bidez eramateko.

Izen-deiturak:, IFZ:,
helbidea:, posta elektronikoko
helbidea:, telefono zenbakia:

Alta emanik dagoena jarduera ekonomikoen gaineko zergaren epigrafe honetan:

edo

Izen-deiturak:, IFZ:,
honako entitate honen izenean eta hura ordezkatzuz:,
IFZ:, helbidea:, posta elektronikoko
helbidea:, telefono zenbakia:

Alta emanik dagoena jarduera ekonomikoen gaineko zergaren epigrafe honetan:

Agiri honen bidez, bere borondatea adierazten du honako itun honi atxikitzeko: Kanpoko lankidetzarako ituna software-hornitzaile diren entitateekin, fakturazio-erregistroak elektronikoki emateko hirugarrenen izenean, horrek bide emanen baitu Balio Erantsiaren gaineko Zergaren erregistro-liburuak Nafarroako Zerga Ogasunaren zerbitzu telematikoen bidez eramateko, Informazioa Berehala Emateko (IBE) sistemaren betebeharrak betetze aldera. Halere, eskatzaileak ez du aukerarik izan hirugarrenen izenean jakinarazpenak eta zerga arloko beste agiri batzuk (fakturazio-erregistroak ematekoak ez badira) aurkezteko, ez eta zerga zorren ordainketa telematika bidez tramitatzekoa ere, Ekonomia eta Ogasuneko

kontseilariak ekainaren 29an emandako 130/2009 Foru Aginduaren bidez onetsi zuen kanpoko lankidetzarako itunaren arabera.

Izenpetzaileak lankidetzarako itun honen edukia osorik ezagutzen du, eta bere egiten ditu espresuki horren ondoriozko betebeharrak, hirugarrenen izenean eta kargura, telematika bidez aurkeztuko diren fakturazio-erregistroen ordezkari eta aurkezle den aldetik.

Izenpetzaileak adierazten du aipatu itunaren esparruan eginen dituen jarduketetan une bakoitzean izanen duela behar den ordezkaritza hirugarrenen izenean eta kargura jarduteko, Tributuei buruzko abenduaren 14ko 13/2000 Foru Lege Orokorraren 36. artikuluan xedatutakoari jarraituz; ordezkaritza hori egiaztatu beharko du Nafarroako Zerga Ogasunak eskatzen dionean.

Izenpetzaileak berariaz onartzen du bide elektronikoen bidez jasotzea Nafarroako Zerga Ogasunak bere eskumenak erabiliz bidaliko dizkion jakinarazpen administratiboak. Horrela, ulertuko da itunaren izenpetzaileak adierazi duela aipatu erakunde autonomoaren jakinarazpen elektronikoak jaso nahi dituela.

.....(a)(e)n,(e)koaren(e)(a)n.

Sinatua:

Agiri hau sinatuta, izenpetzaileak baimena ematen du bere datu pertsonalak eta ordezkatzeko duen entitatearenak automatizaturik trata daitezen lankidetzarako itun honetan sinatutakoaren ondorioetarako (Datu Pertsonalak Babesteari buruzko Lege Organikoaren 5. artikulua).